

101. zk.
2001eko maiatza

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



EUSKARARI ZUKUA ATERAZ!

Franko itundua 48/27










4x3

HILABETE HONETAN 3 LIBURU ORDAINDU ETA 4 ERAMAN (merkeena dohain)

albeniz liburudenda

Benito Ginea, 2 - Tfnoa. 945 25 75 14 • 01003 GASTEIZ



101. zk. 2001eko maiatza

•• 4-5. orr.:

"ATERAIOZU ZUKUA" EGUNA

•• 6-7. orr.:

ZIZKA-MIZKAK

•• 9. orr.:

ZINEA EUSKARAZ

•• 11. orr.:

LITERATURA

•• 12-15. orr.:

RAMON ARANBARRI argazkilariarekin
hizketan

•• 19. orr.:

KOZKORTUZ

•• 20-21. orr.:

UDALA&EUSKARA.

•• 22-23. orr.:

Encina Serrano, Kultur zinegotzia.
Udala-kultura-euskara

•• 25. orr.:

KOMIKIA. Erein argitaletxea

•• 26-27. orr.:

LESGAYTEGIA

•• 29. orr.:

Eva Domaika. Euskaltasunean lagun

•• 31. orr.:

Sergio Fernandez Atauriren kasua
SENIDEAKen eskutik

•• 33. orr.:

Zeuk aukeratu!

•• 34. orr.:

Iñigo Sarasola. Komikia



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a • Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es


Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Agurtzane Villate. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Inundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Udala



Arabako
Foru Aldundia



CASA LARRALDE
EUSKARAREN KUTXA

APIRILAK 7. 100. ALEA OSPATUZ, "ATERAIOZU ZUKUA"
EGUN ETA GAU ARRAKASTATSUAK!







GEU ELKARTEAK KOORDINATZAILE ARITZEKO LAGUN BAT BEHAR DU

(EGUNEAN 4 ORDUZ).

LANPOSTU HONETAN ARITU NAHI IZATEKOTAN,
DEITU **945 22 21 53** TELEFONORA
ETA EMAN ZURE IZENA.

araba bixotzian
gastelzkinak

Agurtzane Villate





gasteizko gaztetxearen
XIII. urteurrena




herriaren erroetatik...
urte askotarako

GASTEIZKO GAZTETXEAREN 13. URTEURRENA BOTATZE ARRISKUZ BUSTIA



ERROTA BORROKAN

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin

Urtxintxa, katagorria, katamixarra. Hiru izen, gutxienez, Euskal Herrian hain ugaria den basoko animalia atsegin hau izendatzeko. Mundu osoan bat: *Sciurus vulgaris*

GEU aldizkarian iragarritz, EUSKARA bultzatu.


MILA ESKER! Iragar zaitez! 945 22 21 53



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Egueditan, astalabaretik ostiralera

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 68 33



lzoziak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

BEGIAK ARIMAREN
ISPILUA DIRA ZURE
BETAURREKOAK
MODAREN ISLA

EGUZKITARAKO
BETAURREKOEN
BILDUMA BERRIA

USTE DUGU EGUZKITARAKO
BETAURREKOAK EZ DIRELA
OSAGARRI HUTSA. HORREGATIK,
HEMEN, ZURE ESTILORA,
BEHARRETARA ETA POLTSIKORA
GEHIEN EGOKITZEN DIRENAK
AURKITUKO DITUZU.
MENDIA OPTIKA-MULTIOPTICASEN
GUZTIAK DITUGULAKO, ZURE BEGIAK
MODAN EGON DAITEZEN. ETA GAINERA,
GALDETU GRADUATUTAKO
EGUZKITARAKO BETAURREKOETAN
9.400 PTA.TIK (56,50€) AURRERA
DITUGUN MODELOEZ.



www.multipticas.com



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Azkenean...

ZINEMA EUSKARAZ

Orain arte Guridi eta Samaniego zine aretoek eskaintzen zituzten euskarara bikoiztutako pelikulak (aurten abian jarritako proiektua da). Baina, duela hilabete Samaniego zinematik ateak itxi eta Vesa enpresak Florida aretoak ireki zituen San Prudentzio kalean. Hortaz, euskarazko filmak zinema berri horretan ikusteko aukera dago orain.

Javier Etxagibel Vesa enpresako zuzendariak azaldu zigunez, "euskarara bikoiztutako filmak eskaintzeko ekimena momentu honetan garatzen ari da, eta hortaz oraindik ezin dugu datu gehiegirik eman proiektu honen inguruan". Aitzitik, hainbat datu jakin badakizkigu. Esaterako, Euskal Herriko beste hiriburuetan ere ekimen hau martxan dagoela eta Samaniego zinematik itxi aurretik hiru pelikula eskaini zirela bertan: Ogia eta arrosak, Liam eta Guztiek nahi dute hilda. Etxagibelek jakitera eman digunez, "momentu honetan euskarara bikoiztuta dauden pelikulen %100a eskaini dugu".

Gure hizkuntzaren zabalkuntza eta hedapenari bultzada bat emateko helburua dauka ekimen honek, Vesako zuzendariak esan digunez. Xede hori gauzatu ahal izateko, Florida zinema berrietan

euskarara bikoiztutako pelikulek tarte garrantzitsua daukate. Izan ere, goizetan hurrei zuzendutako euskarazko pelikulak eskaintzen ditu Floridak. Orora, hamalau film emango ditu areto honek lehen seihileko honetan. "Modu honetan gure jarduera zinematografikoa eta euskararen hedapena uztartu nahi ditugu", dio Etxagibelek. Gauzak horrela, goizetan hurrek gozatuko dituzte euskarazko pelikulak eta arratsaldeetan, berriz, helduek. Ekimen berri horrekin, Vesak bere "harri kozkorra ekarri" nahi izan du euskararen alde, zuzendariak adierazi duenez. Eskertzekoa da. Euskarak merezi duelako, eta ikusentzuleok behar genuelako.

•Eduarne Begiristain•

Gasteizko ohiko zine aretoetan euskarara bikoiztutako pelikulak ikustea jada ez da amets bat. Errealitate bihurtu da duela gutxi. Uneotan ireki berri diren Florida zine aretoetan dago pelikulak euskaraz gozatzeko parada. Bazen garaia horrelako ekimena abian jartzeko!



TITULU INTERESGARRI ETA ERAKARGARRIAK

Hauetxek dira Florida zinematik iraila bitartean eskainiko dituzten euskarazko filmetako batzuk:

TITULOA	Zuzendaria
✓ GIZON GAIZTO BATEN ISTORIA	(Myriam Ballesteros)
✓ CORINA, CORINA	(Jessie Nelson)
✓ ALARGUNEN GAILURRA	(John Irvin)
✓ URTE ILUNAK	(Arantxa Lazkano)
✓ IPAR HAIZEAREN ITZULERA	
✓ ALHANBRAKO PRINTZEA	(Juanba Berasategi)
✓ MEGASONIKOAK	(Javier Gonzalez de la Fuente ...eta Jose Mtz. Montero)
✓ JACK AMAZONASEKO ERREGEA	(Flemming Quist Moller, ...J. Ierdan eta Stefan Fjeldmark)
✓ BIZITZAREN ARBOLA	(Farhad Mehranfar)
✓ GU BAI GU	(Toni Abad)
✓ EKIALDEA EKIALDE	(Damien O'Donnell)
✓ MARCO ANTONIO HONG KONG-EKO BAHIKETA	(Carlos Varela, Manuel J.Garcia)
✓ KARRAMARRO UHARTEA	(J. Muñoz, Txabi Basterretxea)
✓ AMETSEN LAPURRA	(Angel Alonso)

**Gure hizkuntzaren
zabalkuntza eta
hedapenari bultza-
da bat emateko hel-
burua dauka eki-
men honek**

NON BAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

RAFA TEJA ATELIER



*"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotutak"*

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59



**“Argazki
batek
bizitza
izan
behar
du”**

**RAMON ARANBARRI BENGOA,
ARGAZKILARIA**

Ramon Aranbarri Gasteizen jaio zen 1964ko urriaren 15ean. Sukaldaritza ikasketak bukatu eta horretan hamar urtez lan egin ondoren, lapi-koak eta zartaginak alde batera utzi eta naturaren argazkigintzan buru-belarri jardutea erabaki zuen. Geroztik bere argazkiek sari asko lortu dituzte, horien artean: Natura aldizkariaren Iberiar Fauna Sariaren 1.a (1998), La Tierra aldizkariaren Zaletuen Sariaren 1.a (2000), Gironako Naturazaleen Sariaren 2.a (2000)... Gainera, Kondorrari buruzko erreportaje bi kaleratu ditu Natura aldizkarian.



Natura eta Ramon Aranbarri umetandik dira lagun minak. Aita ehiztaria zuen eta berarekin ikasi zituen animaliei eta, batez ere, hegaztiei buruzko sekretu gehienak. Sukaldaritza eta ornitologia tartekatu zituen bolada baten ondoren, 1997tik Ramon naturaren argazkigintzan erabat murgilduta bizi da. Aipatu sariez gainera, azkenengo hiru urteetan BBCren Wild Life Photograph lehiaketako finalerdietan ere izan da, mundu mailako naturari buruzko argazkigintzaren saririk garrantzitsuena, alegia.

Udaberria iritsia da eta berarekin batera natura argazkilarientzako lan boladarik gogorrena. "Loreak, ugaztunak, hegaztiak, narrastiak..., denak beren ikusgarritasun osoan eta hautatu beharra dago, lana antolatu behar da". Baina lan gogorak ez du Ramon izutzen eta aitortzen du naturaren argazkilaritzak ematen dion betetasuna ez duela pertsonen edota herrienarekin erdiesaten. Hala ere, une honetan, Arabako Mendialdeko herrien argazki bilduma batean lanean ari da.

Ordu asko pasatu behar izaten ditu gasteiztar honek zuhaizpetan argazkirik adierazgarrienaren zain. Horrek hegaztien portaera eta bizimoduaren inguruko eza-gutza handia eskatzen du; horre-

tan urteetan zehar basoetan emandako orduak jantzi dute argazkilari hau: "erraza da ur txori bati buruzko erreportajea egitea, baina burua noiz mugitu-

ko duen edota nola portatuko den jakiteak izugarri laguntzen dizu eta asko han orduak eta orduak egonez ikasten da".

ARABAKO FAUNA NAGUSI

Baina argazkirik onenak atera ahal izateko irudimen handia ere behar da, eta horretaz ere badaki Ramonek zeozar. Hegazti edota animalia bat aurkitzen duenean ingurunea aztertu eta egokien gerta daitekeen gordelekua prestatzen hasten da. Txilera egindako azkenengo bidaian inoiz egin duen gordelekurik saiatuena erakitzu zuen: "Hango erliebea oso zaila da eta materiala eramatea ez da batere erraza izaten. Oso eremu malkartsua zen arren, gure gordelekua jarri genuen: egurrezko egitura, plastikoa, oihal ber-

**"Ez dago gustatzen
zaizunaz bizitzea
bezain gauza
pozgarririk"**

**"Dударik gabe, irudi
batek mila hitzek
baino gehiago esaten
du askotan"**



**“Portaera
ezagutzeak
asko
laguntzen du
argazki
on bat
ateratzeko
orduan”**

dea, ezkutaketarako tela eta adarrak. Hiru egun egon ginen barruan, lo egiten eta guzti”.

Ateraldiak egin baditu ere, Ramonek Arabako basoetan dagoen animalia eta hegaztien aniztasuna gutxiago ez dela aitortzen du. Eta horietako batean, Izkiz-ekoan hain zuzen ere, gertatu zaio Ramoni bere argazkilari bizitzako gertaerarik politenetako bat: “Nartziso eta beste lore batzuei argazkiak ateratzen ari nintzaian, oin hotsak

entzun nituenean. Atzera begiratu eta basurde bat zen, basurde zuri bat. Albino izateaz gainera, gaizki ikusten zuela uste dut, niregana hurbildu baitzen eta argazkiak ateratzen utzi zidan eta”.

Kanpoan denbora luzea pasatu behar den arren horrelako bizipenekin eta animaliaren izaera erabat islatzen duten argazkiak lortzen dituenean beteta sentitzen da Ramon, “ez baitago gustatzen zaizunaz bizitzea bezain gauza pozgarririk”.



Ramonek Arabako basoe- tan dagoen animalia eta hegaztien aniztasuna gutxiago ez dela aitortzen du



- NOLAKOAK DIRA ZURE ARGAZKIAK?

- Errealistak. Animalien portae-
ra erakusten saiatzen naiz. Oso
desberdina da txori bat, beste-
rik gabe, adar batean ateratzea
edota jaten, arrain bat ahoan
duela, ateratzea. Nahiz eta beti
atera nahi dudana ez den irte-
tzen, ni argazkia ikusten due-
nak animalia izaeratik zer-
bait ikus dezala saiatzen naiz.
Argazkiek bizitza izan behar
dute, girotze ona, kolorea...

- ZEINTZUK DIRA ZURE LAN TRES- NAK?

ZEINTZUK BALDINTZEKIN LAN EGI- TEN DUZU GUSTUREN?

- Tripode on bat, kamara nor-
maltxoa eta objetibo on bat ere
bai. Bestela, argi naturalarekin
lan egiten ahalegiten naiz, flas-
hik erabili gabe. Onena erdibi-
deko argia da, hodei asko ez
eta zeru urdina ere ez, tarte-
koa. Baina gehien gustatzen
zaizkidan argiak, batez ere
udaberrian eta udan, egunsen-
tikoa eta iluntzekoa dira.
Horregatik, oso goiz esnatu
egiten naiz tokira gauez iriste-
ko eta egunsentia oso-osorik
harrapatu ahal izateko.

- EGIN DUZUN ARGAZKIRIK ONENA?

- Ur txoriei eta eperrei eginiko

asko gustatzen zaizkit. Asko
ditut baina inoiz ez dira berdi-
nak izaten, ez naute nekaten
eta urtero berriak egiten ditut.

- ETA OKERRENA?

- Txarrak direnak bota egiten
ditut. Nahiago dut argazki
gutxi baina onak bidali ezer
esaten ez duten asko baino.

- ARGAZKILARIRIK?

- Estatu mailan lan egiten duten
argazkilari ugari gustatzen zaz-
kit. Horietako asko lagunak
ditut eta piloa irakatsi didate.

- ZENBAT BALIO DU ARGAZKI BATEK?

- Hori ezin da zehaztu. Nola
jarriko diezu balioa basoan,
gordelekuan... eman dituzun
ordu guztiei?

- IRUDI BATEK MILA HITZEK BAINO GEHIAGO BALIO AL DU?

- Bai, dudarik gabe. Eman
didaten azkenengo saria jaso
nuenean horixe bera esan nien.
Hitz batzuk egin behar nituen
baina argazkia hor aurrean
izanda, zer gehiago esan neza-
keen?

•Ainhoa Ferron•

Animalia eta paisajeen arg. © Ramon Aranbarri





GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Euskara bultzatu nahi?...



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO • 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADIMOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43



etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digitok)		Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

GEU ALDIZKARIA. 100. ALEA. MATERIALA SALGAI. EROSI ETA KOLABORATU!



- **KAMISETAK (GRISA-BELTZA): 2000 PTA.**
- **TXISKEROAK: 150 PTA.**

***HONAKO TOKIETAN: TXAPELA-
RRI, PARRAL, ALDE ZAHARREKO
HERRIKON (KAMISETAK ETA
METXEROAK)/XABIER, BODE-
GOIA, ANDAGOIA (METXEROAK)**

**EDO HONA DEITU:
945 22 21 53.**

"TXEROKIREN TXORAKERIAK"


KOMIKI LIBURUA:

1.600 PTA. LIBURUDENDETAN SALGAI.

***HARPIDEDUN ETA BAZKIDEENTZAKO
ESKAINNTZA BEREZIA: 1.200 PTA. (Hona deituta).**



Obsesioa zer
den ba al dakizu?



erein
argitaletxea

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi

samurretan espezialduak

Garagardotegia

Asteburuero
IREKITA

*Gerentzia
berria*

La Blanca



* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

"HERRIA DA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA"



- Euskara dakitenek gehiago hitz egitea galdu ez dadin.
- "Euskaraz hitz egin dezagun!"

PABLO, 8 urte



IGOR, 10 urte

- Euskara bultzatzeko programa berezi bat prestatu behar da.
- Ikastolaz kanpo euskararen erabilpena areagotu.

Euskara indartu eta zabaltzeko asmotan ideia berrien bila LOPE DE GEREÑU ikastetxera jo dugu, umeek dauzkaten ideia argi eta esanguratsuak zuei eskaintzeko prest.

Beraz, adi egon eta botatako ideia bat edo beste aurrera eramateko aukera ikusten baduzue, animo!.



JULIA, 11 urte

- Telebista eta ordenagailuetan euskara erabiltzeko aukera gehiago izatea.
- "Eskoletan eta kalean... euskaraz!"



MAITANE, 8 urte

- Euskaraz asko mintzatu behar dugu.
- "Guztion artean euskaraz hitz egin behar dugu".



ELISA, 8 urte

- Euskaraz liburu gehiago argitaratzea, umeok irakur ditzagun.
- Familia artean euskara gehiago erabiltzea.



IRAIA, 11 urte

- Film eta aldizkari mordo bat euskaraz izatea eta supermerkatuan osagaiak ere euskaraz egotea.
- "Euskaraz gehiago hitz egin ahal dugu!"

UDALA&EUSKARA

“PPk, UAk eta PSEk hitzartutako aurrekontua salatu dute euskaltegiek” (Gara-apirilak 6)

Diru-laguntzak kendu dizkielako Udala kritikatu dute Euskaltegiek

Gasteizko Ika, Udaberria, Hegoalde eta AEK euskaltegiek atzo Udalean PPre, UAren eta PSeren artean hitzartutako aurrekontua kritikatu zuten, euskaltegiei laguntzeko eta gurasoak eta Udaleko langileak euskalduntzeko eman izan dituzten diru-laguntza historikoak kendu dizkielako. Halaber, euskarak jasaten duen diskriminazioa salatu zuten.

EAJk eta EAK Euskara sustatzeko laguntza programak suntsitzeaz akusatu dute Alonso

(El Correo Español-martxoak 30)

Gasteizko Udaleko EAJko eta EAKo nazionalistek Partidu Popularra akusatu zuten atzokoan, euskara erabili eta ikasteko udal programak suntsituz euskarari eraso egin diolako. Koalizio honetako zinegotzi den Manu Allendek bere “harridura eta samina” azaldu zuen, PPk, UAk eta PSEk hitzartutako aurrekontuetan horrelako ekintzarako aurreikusten diren zuzkidura ekonomikoak “izugarri murriztu direlako”. “Hizkuntza profilak lortzera zuzentzen ziren sailak 7,1 milioitik 4ra murriztu dira eta haurrak eskolatze garaian dituzten gurasoentzako ikastaroetakoak 26,4 milioitik 18ra murriztu dira”, azaldu zigun.

Gainera, iaz 16 milioi jaso bazituzten ere, euskaltegiei ematen zaizkien laguntzak erabat deuseztatu direla salatu zuen EAJ-EA koalizioak. Azkenik, funtzionarioentzako ikastaroak soilik ekain arte bildu dira aurrekontuen barnean.

“PPk dio euskara sustatzen jarraitu nahi duela, baina gezurretan ari da”, esan zuen Allendek.

“Xede horretara zuzentzen dituen 64 milioietatik 11 itzulpen lanetarako dira, baina, teoriarik, hauetaz udal langileek arduratu behar lukete”, salatu zuen.

GASTEIZKO UDALAREN ERABAKIAREN ONDORENGO EKIMENAK

PRESS CONFERENCE

Alfabetecion English Koordination (AEK), Basque Country in English (BCE), Bagare English Home and WE Gasteiz groups want to invite to the mass media to participate in a press conference and to take a tea the next wednesday* in the New Square (Spanish Square) of Victoria City at 12 o'clock.

Thank you a lot for your cooperation

*Apirilak 11

EUSKARARI ERASORIK EZ! (EUSKALTZALEON ELKARGUNEA-apirilak 11)

Gasteizko Udala zuzentzen duten PP eta UA alderdiak, PSeren laguntzarekin, euskararen kontrako neurri zorrotza jarri dute abian. Hil honetan eztabaidatu behar diren aurrekontuetan euskalduntze alfabetatze arloari ez zaio sosik

emango. Urteetan egon diren laguntzak bertan behera utzi nahi ditu PPk. Gasteizko gizarte berreuskalduntzeko lan itzela egiten duten euskaltegiei dirulaguntzak kendu, beraien seme-alabekin euskaraz hitz egin ahal izateko gurasoentzat antolatu ohi diren eskolak desagertarazi eta Udal langileak euskalduntzeko plana ezabatu, hauxe da gure alkateak Gasteizko hizkuntza ofizialari dion begirunea.

Hau guztia ez da Gasteizko euskaltegien kontrako neurria, gizarte osoaren kontrakoa baizik.

Askotan entzun izan diegu PPko buruzagi politikoei, eta batez ere, Etxeberria jaunari PPk ez zuela sekulan ere euskararen kontrako neurririk hartuko, PPk euskararen aldeko politika eramango zuela, eta kontrakoa esatea oposizioko alderdi eta talde euskaltzaleen

“Udalak Gasteizko euskaltegiei dirulaguntza kendu izana salatu dute 2.000 lagun inguru” (Egunkaria-apirilak 26)

Hiriburuko lau zentrotako ordezkariak 2.200 sinaduraz aurkeztu zituzten atzo udal erregistroan

...Udaleko enpresa komiteak ere neurriaren kontrako sinadurak bildu ditu, eta erabaki onartezintzat jo du.

EAJ-EA koalizioak PP kritikatu du, euskararen aldeko programak baztertu dituelako (GARA-martxoak 30)

EAJko zinegotzi Manuel Allendek azaldu zuenez, aurtengo aurrekontuetan euskara sustatzen jarraitzeaz PPK esan zuenaren aurka, euskararekin lotutako sailak onartzen badira "murrizketa larriak" izango dira.

Funtzionarioentzako euskarako hizkuntza profila lortzeko ikastaroetarako iazko 7,1 milioietako saila aurtan 4 milioira murriztuko zela zehaztu zuen, **eta haurrak eskolatze garaian dituzten gurasoei zuzendu zitzaizkien 26,4 milioiak aurtan 18,7 milioira murriztuko zirela**. Gainera, Allendek adierazi zuenez iazko urtetik hartutako konpromisoak bete ahal izateko sail hauek ekain arte soilik bildu dira aurrekontuetan; **beraz, programa horiek datorren ikasturtean desagertu egingo dira**.

"PPk euskararen erabilera, hedapena eta ikaskuntza bultzatuz euskara sustatzen jarraitu nahi duela dionean gezurra dio, izan ere iazko aurrekontuetako 60 milioiko saila aurtan 64koa bada ere, 11 milioi itzulpenetara zuzendu direlako gertatu baita hori", adierazi zuen zinegotzi nazionalistak. Hori guztia aintzat hartuta, euskarari dagokionez aurrekontuari zuzenketak aurkeztuko dizkiotela azaldu zuen Allendek, euskararen ofizialtasuna sustatzen dela egiaztatzeko.

paranoia besterik ez zela. Hona hemen errealitate gordin, Etxeberria jauna: aurrekontu hauekin PPK euskarari kalte egin nahi dio. Etxeberria jaunak euskarari esleitzen zaion aurrekontua igoko dela esaten du behin eta berriro, baina iruzurra baino ez da, udalak, berez eskaini beharreko zer-

bitzuen kostea gehitu baitio aurrekontuari; aurrekontuan euskarari egokitzen zaizkion 64 milioietatik zatirik handiena itzulpenetan gastatuko da, udalaren funtzionamendua euskaraz izan dadin lagundu beharrean.

Gasteizko eta Arabako gizarteak maiz EUSKARRI BAI esaten dio eta PPko

buruzagiek honi muzin egingen diote. Hori dela eta, Gasteizko gizarteari erantzuna emateko eta alderdi politikoei PPren nahiak bertan behar behera utz ditzatela eskatu nahi diegu.

Euskararen aurkako erasorik EZ. Arabarrok euskarari BAI.

ENCINA SERRANO
KULTUR ZINEGOTZIAK,
ORDEA, DIO DENA ONDO
DOALA, UDALAK
EUSKARA BULTZATZEN
DUELA ETA ORAIN
KONTUZ IBILI BEHAR
DELA GAZTELERAREKIN,
GAL DAITEKEELAKO...
(22-23. ORR)

Gasteizko Udalak euskararekiko daraman politika kezka nagusia da azken bolada honetan, euskarak gure hirian aurrera egitea oztokatzen duten erabaki desberdinak abian jartzen ari baita, hemendik gure kritika eta salaketa adierazten dugularik. Martxoan alean EHko zinegotzia den Eba Gonzalez de Herediarekin bildu eta Euskararen Udal Ordenantzaren lan taldea bertan behera uzteko Udal Gobernuaren erabakiaz mintzatu ginen. Honen ostean egoki ikusi genuen Encina Serrano Alderdi Popularreko Kultura zinegotzia elkarrizketatzea euskara eta bertako kulturaren alde Kultura Sailak zer egiten duen azaldu eta gai desberdinez mintzatzeko: Euskararen Udal Ordenantza, aurrematrikulazioaren emaitzak, bertako kultura bultzatzen ote duen Udalak, ekimen kultural ofizialak ez direnek tokirik ote duten, euskara bera eta abar...

Encina Serranorekin elkarrizketa dagoeneko eginda zegoenean **Alfonso Alonso (*)** alkatearen euskararen aurkako politika eta hitz garbiak ezagutzen ditugu: "**De la misma manera que no subvencionamos a las academias de inglés tampoco vamos a subvencionar a las academias de euskera. Preferimos invertir ese dinero en otros programas**". (BAI, NOSKI, HEMENGO HIZKUNTZA OFIZIALETAKO BAT INGELESA DENEZ...)

(*) Esan beharra dago iazko azaro-abendutik Alfonso Alonso alkatearekin elkarrizketa bat lortzen saiatu garela, eta ezin...;

gauza bat zela, bestea zela, ez digute azkenean hitzordurik eman.

Encina Serranorekin hitz egitea erdietsi genuen nahiz eta honek Geu aldizkaria ezagutu ez... -hori esan zuen behintzat!- (halere, kultur zinegotzia izan eta ez ezagutzea hiriko proiektu kulturaletako bat, Gasteizen egiten den Araba osoko euskara hutsezko hilabetekari bakarra, gure hirian euskararen erreferente garrantzitsua dena...). Eta gertatutakoak gertatuta, hasieran egindako elkarrizketa gerokoekin osatu nahi izan genuen, hau da, Udal Gobernuaren euskara ez subentzionatzeko (euskaltegiak, gurasoen ikastaroak, funtzionarioen euskalduntzea...) erabakiaren gaineko bere iritzia jasoz, eta berarekin berriz ere harremanetan jarri ginen (oraingoan aldizkariaren informatu zela jakinarazi zigun)...

Hona hemen, beraz, hasierako elkarrizketa eta ondoren gehitutakoa... Hori bai, **IZENBURUA** (zein bestelako batzuk) irakurri ostean (izenburu gisa txit adierazgarria den berak botatako esaldi bat hautatu dugu) **ESKUBIDE OSOA DUZUE MINDUTA ETA AMORRATUTA SENTITZEKO, BERAU IRAKURTZEAK MIN EGITEN BAITIO EGUNIK EGUN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ALDE DIHARDUEN EDONORI**: "Ezin dugu gaztelera galtzen utzi"... Akaso gaztelera normalizatu beharrik al dago? Hau al da serioa?

Hortaz, hona hemen elkarrizketa...

•G.A.•

Encina Serrano, Kultur zinegotzia.
Udala-kultura-euskara

“EZIN DUGU GAZTELERA GALTZEN UTZI”

Oso okupatuta harrapatu genuen Encina Serrano, Gasteizko Kultur zinegotzia, bi bisiten artean, eta norekin ari zen ez zekiela -gero informatu zen-, GEU aldizkariak bere Sailaren "dirulaguntzak" jaso dituen arren (iaz 200.000 pta. orotara elkarte eta aldizkariarentzat urte osorako...; aurten oraindik ez dago bideratuta). Gasteizko kultur eskaintza, haur eskolen arazoa, hiriko artistekin dituen harremanak eta euskarak Udalean duen lekuari buruz mintzatu ginen berarekin, baina ezin izan genuen Euskararen Ordenantzen gaia landu, zertan dagoen ez zekielako. Kulturari buruz hitz egiten politikari buruz baino erosoago nabaritzen zaio Serrano andreari, eta ez zen maiatzeko hauteskundeetarako pronostikorik ematen ausartu, “zer nahi dudan oso argi dut, hori bai”.



JAIOITZE DATA:

1948-11-20. GASTEIZ

IKASTETAK:

BATXILERGOA

POLITIKAN SARTU AURREKO LANA:

EUSKO JAURLARITZAKO

ONGIZATE SAILEKO LANGILEA ZEN

NOIZTIK POLITIKAN:

DUELA 6 URTE ETA BETI UDALEAN.

4 URTE OPOSIZIOAN ETA BESTE

2 GOBERNU TALDEAN.

- ZEINTZUK DIRA, LABURBILDUZ, GASTEIZKO UDALEKO KULTURA SAILAREN AURTENGO ILDO NAGUSIAK?

Kultura hiritarrari hurbildu nahi diogu, eta helburu hori lortzen ari gara. Nik uste Gasteizen kultur eskaintza itzela dagoela, ez dut uste inor ase gabe uzten dugunik. Huts bat aurkitzekotan, azpiegiturak aipatuko nituzke nik, eta orain auditorium bat eraikitzeak aukera aztertzen ari gara, Principal Antzokia txikia geratu zaigulako eta Gasteizera ekarri ezin ditugun ekitaldiak daudelako.

Kultura Sailaren bigarren zeregina urteko jai zehatzak antolatzea da, Gasteizko jaiak, Gabonetakoak, ... Aisialdiaren antolaketa, azken finean.

- GASTEIZEK KULTUR EKITALDI GARRANTZITSUAK DITUELA EGIA DA -ANTZERKI ETA JAZZ JAIALDIAK, ...-, BAINA BERTAKO ARTISTEI EZ ZAIELA BEHAR BESTE LAGUNTZEN SALATU OHI DA. KULTURA SAILAK GASTEIZKO ARTISTEkin LAN EGITEN AL DU?

Guk Katanga Faktoriarekin lan egin izan dugu, Pop-Rock astean kolaboratuz; Gasteizko taldeak kontuan hartzen ditugu Jailetako

egitaraua egitean, Montehermoso Kulturuneko kontzertuetarako, baita Gizarte Etxeetako ekitaldietarako ere. Bestetik, artistek beren proiektuak garatzeko dirulaguntzak lortzeko hiru deialdi izan ditugu.

Hala ere, iazko jaietan hiriko taldeek Foru plazan ez zutela jo kritikatu zen, baina gune hori esperientzia handiagodun taldeentzat da. Hasi berriei aukerak eman behar zaizkie, baina ez zaie zertan eszenategi handi batera eraman; bakoitzak bere mugak eza-gutu behar ditu. Begiratu Raul, adibidez; berak Foru plazan jotzea merezi du, baina egun artista guztiek jenio batzuk direla uste dute, zuzenean konsagratuek lan

**Ezin izan genuen
Euskararen
Ordenantzen gaia
landu, zertan
dagoen ez zekielako**

egiten duten tokietan aritu nahi dute, eta ezin da.

- EUSKARAK ZER LEKU DU KULTURA SAILAREN PLANGINTZAN?

Elebidunak garenez eta euskara EAEko bigarren hizkuntza ofiziala denez, dagokion tokian dago eta behar duen laguntza du. Kultura Komisioan EAJ eta EHko ordezkariak ez dugula euskarazko ekitaldirik antolatzen esaten digute. Nik beti erantzun bera ematen diet: Haurrentzat euskaraz prestatzen ditugun ekitaldiak betetzen dira, baina helduenak ez, eta guk ahalik eta jende gehiagorengana iritsi nahi badugu jendeak eskatzen duenari kasu egin behar diogu.

Aurtengo aurrekontuetan, adibidez, Hezkuntza Departamentuarentzat hiru diru partida daude: liburuak itzultzeko, haurrentzako tailerrak egiteko eta materialak erosteko. Guztira 16 milioi pezeta. Guk ez dugula euskara bultzatzen diote hainbat taldek, baina aurrekontuek hori ez dela egia erakusten dute.

Bestetik ere, euskaraz dagoen eskaintza kulturala mugatua da, beti talde berdinak, antzerki lan

"Elebidunak garenez eta euskara EAeko bigarren hizkuntza ofiziala denez, dagokion tokian dago eta behar duen laguntza du"

berdinak. Eskaintza handiagoa eman beharko lukete, baina hori ere denborarekin etorriko da.

- **ETA ESKAINTZA HORI BULTZATZEA, LAGUNTZEA PENTSATU AL DUZUE?**

Guk dagoena erosten dugu.

- **BERAZ, ZURE USTEZ, GASTEIZKO UDALAK EUSKARA BULTZATZEKO PLAN ZEHATZA DUELA ESAN DAITEKE?**

Bai, noski. Aurrekontudun plana dugu.

- **EUSKARAREKIN JARRAITUZ, ZERTAN DAUDE EUSKARAREN ORDENANTZAK? LAN TALDEA BILDU AL DA?**

Ordenantzak? Ez dakit, ez dagokit niri. Euskara Departamentua Presidentzia Sailean dago, eta badakit diru partida bat dutela,

Euskara, geurea... ingelesa bezala??!!??

Udalak euskaltegiei dirulaguntzak kentzeko erabakiaz galdetuta, egindakoa gaizki ulertu dela da jasotako erantzuna. "Euskarak lehen jasotzen zuen diru partida mantentzen du, ez du galdu", azaldu du Encina Serrano, Gasteizko Kultura zinegotzi popularrak: "**Lehen euskaltegiek jasotzen zuten diru hori beste ekimen batzuk garatzeko erabiliko dugu: haurrentzako antzerki lanak programatu, ipuin liburuak euskarara itzuli**".

Euskaltegiek ez omen dute diru partida horien galera ia nabaritu -hori dio...-, "**Eusko Jaurlaritzaren babes ekonomiko handia daukatelako**". Encina Serranoren ustez, "**azken hogeitaz urteetan euskara izan da Jaurlaritzaren kultura politikaren ardatza eta ildo bakarra**". Bere ustez, Lakuak ez du proiektu kulturalik izan: "**Euskarari lagundu besterik ez du egin**".

Gizarteko hainbat sektorek euskara "**monopolizatzen**" dutela salatu du Serrano zinegotziak elkarrizketan zehar behin baino gehiagotan, "**eta gauzak ez dira horrela, euskara guztiona baita**". Ikuspuntu horretatik Alfonso Alonso alkateak euskara eta ingelesa parekatzen egindako adierazpenekin bat datorren galdetuta, "**horixe ba, ingelesa bezala hizkuntza bat da euskara ere, eta bultzatu behar dugu, baina beste hizkuntzak bezala eta normaltasun baten barruan**", erantzun du.

Ildo berdinari eusten dio Geu aldizkariak -Arabako euskarazko hilabetekari bakarra- Udaletik jasotzen duen dirulaguntzaren kopuruarengatik galdetuta (iaz 200.000 pta. orotara elkarrekin eta aldizkariarentzat urte osorako, beraz, 100.000 pta. proiektu bakoitzarentzat -aurten oraindik ez dago bideratuta; eta aparte, "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava" erakusketarako akordioa -500.000 pta.-): "**Ez da ezkutuko arrazoirik bilatu behar, 240.000 biztanle gara eta batek aldizkari bat argitaratzen du, besteak CDak, besteak..., eta ez da guztientzat iristen. Guztiei zerbaite ematen saiatzen gara, eta ez dugu beti lortzen**".

Aukeratzen hasita proiektu interesgarriak aukeratu beharra dagoe-la azaldu du, "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava" erakusketa adibidez: "**Eskuzabal izan ginen erakusketarekin, erakusketa aretoa utzi genien, ideia mundiala zelako, didaktikoa eta atsegina**". (*)

(*)Erakusketa oso proiektu interesgarria eta beharrezkoa da, eta arrakasta itzela izaten ari da eta gu izugarri kontent gaude erakusketak izandako harreragatik, Gasteizen -11.000 bisitari- zein herriz herriko itinerantzian. Baina aldi berean ere galdetzen diogu gure buruari...: Eta ez al da aldizkaria proiektu interesgarri, didaktiko, atsegina eta beharrezkoa?; edota elkartetik bideratutako ekimen desberdinak, formatu txikiko kontzertuak, esaterako, non parada daukagun bertako artista, kantautore eta izen ugari eza-gutzeko (Labrit, Morau, Txuma Murugarren, Xabier Montoia, Petti...)?; edota "Aterazioz zuku euskarari eta bere freskotasunetik edan -Sácale jugo al euskera y saborea su frescor" lelopean, 100. aleko kanpainari eutsiz, batera antolatutako kultur ekintzak: Mikel Urdangarin, J.C Perez eta Anariren kontzertuak (Principal antzokia) -oso erantzun ona izan dutenak-, Sebastopoleko Titiriteroak eta Kulki -kultura eta kirola- Gasteizko kaleetan murgildu zirenean, jende ugari, haur, gazte zein helduak esku hartze-ra hurbildu zelarik,...? **HAU GUZTIA EZ AL DA BA BERRIA, FRESKOA INTERESGARRIA, DIDAKTIKOA, ATSEGINA, beste talde edo elkarte batzuek antolatutako beste ekimen batzuk bezala...?**

•G.A.



Nik uste Gasteizen kultur eskaintza itzela dagoela

**Bere ustez, Lakuak
ez du proiektu
kulturalik izan:
“Euskarari lagundu
besterik ez du egin”**

**“Horixe ba, ingelesa
bezala hizkuntza bat
da euskara ere, eta
bultzatu behar
dugu, baina beste
hizkuntzak bezala
eta normaltasun
baten barruan”**

baina besterik ez.

- **BAINA LAN TALDEA EZ DA LEGEGIN-
TZALDI HONETAN BILDU.**

Baliteke.

- **HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA AIPATU
DUZU. ZERTAN DAGO UDAL ESKOLETARA-
KO IRAGAN URTEAN BULTZATU ZENUEN
“EREDU BAKARRA”? IKASTURTE HONEN
HASIERAN BERRARTUKO DA?**

Guk eredu hori bultzatu nahi genuen, baina euskara beraiena dela uste duten talde batzuk kontra azaldu ziren. Urte amaieran eredu bakarraren inguruan jardunaldiak egingo dira, zer den, beste herri batzuetan nola erabiltzen den aztertzeke... Haur eskoletan euskara-gaztelera eta ingelesez osatutako eredu bakarra egokiena dela uste dugu. Guk ez dugu ezer inposatu nahi, -euskara leku askotan inposatu den bezala-, baina komeniko litzateke martxan jartzea, gaztelera desagertzen ari dela ikusten ari baikara, eta hori ez da ona. Euskara bultzatu eta gaztelera ahultzea penagarria da. Ezin dugu gaztelera galtzen utzi.

- **BENETAN USTE AL DUZU D EREDUKO
HAUR GASTEIZTAR BATEK GAZTELERA
GAL DEZAKEELA?**

Bai, noski baietz. Gero eta guraso gehiagok haurra euskaldun elebarkarra izatea nahi dute. Bestetik, A ereduan gero eta haur gutxiago dago, eta gainera gaizki ikusiak dira, eta kultura integratzailea izan behar da, ez banatzailea.

Unibertsitatean ere ikasketak euskara hutsez egitea ez dela komeni ikusi da, gazteak ez dira euskara ikasteko gai eta irakasleen maila ere ez da ona. Hizkuntza batengatik sufriaraztea ekiditu behar dugu; izan ere, esaterako euskaraz ez dakizulako lanpostu bat ezin eskuratzea oso triste da. Nik, adibidez, 50 urte ditut eta ez dut euskararekin harreman handirik izan, eta orain ikasten hastea oso zaila da.

- **EREDU BAKARRAREKIN EZ DAGO AUKE-
RATZERIK. ADOSTASUNIK LORTUKO
DUZULA USTE DUZU?**

Jendearen jarrera da euskararen arazo bakarra. Norbaitek jarrera ona badu, ikasiko du, bestela ez. Eta jarrera aldatu behar da, beste gauza batzuetara daramalako.

- **PPK LAKUAKO GOBERNURA IRISTEKO-
TAN MIGUEL SANZ-EN TALDEAK
IRUÑEAN EUSKARAREN INGURUAN HAR-
TUTAKO ERABAKIEN ILDOA JARRAITUKO
LUKE?**

Hori egotzi nahi digute, mapa politiko guztia aldatu nahi dugula esaten dute, baina Araban ez da horrelakorik egin, eta hori izango da gure kanpainaren ardatza: euskara bultzatu dugu, ez da kartel bakarra kendu, ez dugu ohituren aurka jo, ez dugu euskararen aurkako erabakirik hartu...

• Leire Lopez de Aberasturi •

• Arg. Edorta Sanz •

- **ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?**

Ondo tratatzea. Bizi naizen urteetan zoriontsu izatea.

- **JENIORIK BADUZU?**

Handia gainera. Dudan akatsik handiena da.

- **IRAKURRI DUZUN AZKEN LIBURUA?**

Mao Tse Tung zenaren emaztearen bizitza kontatzen duena. Oso interesgarria.

- **KORRIKAN PARTE HARTUKO DUZU?**

(KORRIKA 12 HASTEAREN BEZPERAN
IZAN ZEN ELKARRIZKETA)

Ez dakit. Ez dut uste. Gonbidatu nauten ere ez dakit, egia esan... (Korrikan parte hartzeko gonbidapenik ez dela behar jakinarazten diogu)

- **GASTEIZKO LEKU BAT.**

Armentiarra doan bidea.

- **MUSIKA KLASIKOA ALA MODERNOA.**

Denetik entzuten dut.

- **POLITIKA GIZONEN GAUZA DA ORAINDIK ERE?**

Ez! Gainera emakumeok gehiago inplikatut behar garela uste dut.

- **EGIN DIZUTEN AZKEN OPARIA?**

Lepo-zapi bat.

- **KULTURA SAILBURU BEZALA IKUSTEN AL
DUZU ZURE BURUA?**

Lagun batzuekin horren inguruan txantxetan aritu nintzen lehengo egunean eta bai. Zergatik ez?

(eta guk galdetzen diogu gure buruari...: eta euskara?)





“Orain tolerantzia modan dagoenez toleratzen gaituztela esaten dute”

Gaztelesbos, Gaytasuna eta Oker kolektiboek aurrera eraman duten egitasmoa dugu Barrenkalea 16an jada funtzionamenduan den Lesgaytegia; gay, lesbiana, bisexual eta heterosexualek askatasun sexualaren alde lan egiteko sortutako elkargunea, alegia. Bertan hitz egitera, jolastera, hitzaldiak eta tailerrak egitera gonbidatuta dago edonor. Helburua: gizarteak desioaren orientazioarekiko ezartzen dituen mugak gainditzea. Saioa eta Zuriñek, Gazte Lesboseko kideek, lokalaren nondik norakoak azaldu dizkigute.

• NONDIK SORTU ZEN HORRELAKO LOKALA SORTZEKO IDEIA?

Gaytasuneko mutil batek buruan ekarri zuen Bartzelonara egindako bidaia baten ostean. Han horrelako biltzeko lokalak zeuden eta egin behar genuela esan zuen. Ikusi genuen kolektibook biltzeko eta harremanetan jartzeko ideia ona zela eta aurrera ekin genion. Izan ere, orain arte soilik ekainaren 28an aritu gara batera eta hori urte osoan mantendu nahi genuen. Beraz, hilabete horretara mugatu beharrean Gasteizen gay eta lesbianak urte osoan gaudela adierazi nahi dugu.


• BERAZ, GASTEIZEN ORAIN ARTE IZAN DEN LEHEN BILERA GUNEA DA...

Bai, Gasteizen horrelako toki baten beharra zegoen, baziren taldeak

Gasteizen baina jendea ez zen biltzen eta, horregatik, kalean begibistan den lekua eraiki dugu. Gasteiz osoak jakin dezan hemen gaudela, nahiz eta jendeak “mira a estos maricones” esan, onerako eta txarrerako bizi garela jakin dezan. Hemen ez dago mugarik eta sexualitatea normaltasunez eta askatasunez bizi daiteke.

• NOLA EMAN DUZUE EZAGUTZERA TOKI BERRI HAU?

Bere egunean prentsaurrekoa egin genuen eta, horretaz gain, hilero dauzkagun ekintzak eta programazioa biltzen dituen triptikoa hainbat tabernatan utzi dugu. Dena den, gure artean ahotik ahora erabiltzen dugu nagusiki. Ondorioz, lokalak bazkideen bidez funtzionatzen du, bazkideek ordaintzen



“Ekainera mugatu beharrean Gasteizen gay eta lesbianak urte osoan gaudela adierazi nahi dugu”

IZENA: LESGAYTEGIA

JAIOTZE-DATA: 2001.EKO OTSAILAREN 16AN

duten kuotari esker alokairua ordain daiteke; momentuz 60 bat gara. Izan ere, ez dugu dirulaguntzarik jasotzen, nahi genuke, baina horrek beraien menpe egotea suposatuko ez balu hobe.

• ZEIN DA EGUN LESBIANEK ETA HOMOSEXUALEK GASTEIZEN BIZI DUTEN ERREALITATEA?

Latza... Gasteizen giroko bi taberna besterik ez daude eta gizonezkoenak dira. Gainera, asteburuetara bakarrik muga-tzen da, eta gero astegunetan jendea ezagutzeko lekurik ez dago; beraz, egun bakar batzuetara soilik muga ez gaitzen lokal hau irekitzea erabaki genuen. Honez gain, bagenekien jende asko dagoela inor ezagutzen ez duena eta gaizki ari dena pasatzen; jendea eza-gutuz gero errazagoa da zure burua onartzea. Lokalari esker bera bezalako jende asko dagoela aditzera eman nahi dugu, gaizki pasa ez dezan eta aurrera egin dezan.

• ZEIN DA JENDEAK HOMOSEXUALITA-TEAREKIKO DUEN JARRERA ?

Orain tolerantzia modan dago-enez toleratzen gaituzte, baina hori "posea" besterik ez da; gizarte osoa kontzientziatu behar dugu. Bestetik, nahiko genuke "ekainak 28"an gay eta lesbianak ez direnak ere mani-festaldira etor daitezen, tolera-tzen badute ez baitute bertan agertzeko beldurrik izan behar. Badira ere homosexual asko beldur direnak esateko, eta horrek esan nahi du gizarteak ez diela asko laguntzen.

• ARGIBIDERIK BAI?...?

Legeak aldatu beharko ziren eta orduan jendea aldatuko litzate-ke. Horretaz gain, hezkuntza ere oso garrantzitsua da, eta hortik ez bada hasten orduan matxista eta homofobia izango da gizarte. Gaurko umeei balore horiek erakutsi behar zaizkie. Zer garrantzi dauka norekin larrua jo? Gizarte hone-tan normatik kanpo ateratzen dena arraroa da.

• Josune Velez de Mendizabal •

• Arg. Edorta Sanz •

"Sexualitatea normaltasunez eta askatasunez bizi daiteke"

"Gizarte honetan normatik kanpo ateratzen dena arraroa da"

"Hezkuntza ere oso garrantzi-tsua da, eta hortik ez bada hasten orduan matxista eta homofobia izango da gizarte"





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



“Telebista gutxitan ikusten badut ere ‘Sorginen Laratza’ euskara lantzeko ikusten dut”

Eva Domaika Ansola Gasteizen 1969ko urtarrilaren 22an jaio zen neska alaia eta dibertigarria dugu. Leioan Kazetaritza ikasi eta egun Cope irrartian lan egiten du. Eva euskara ikasten ari da IKAn (jada 10. urratsa, zorionak!). Batzuetan burugogor xamarra dela aitortzen du, baita arduratsua ere. Bere zaletasunen artean, berriz, jatea, edatea, kirola egitea, zinemara joatea eta irakurtzea.

- BIZIORIK HANDIENA?

Jatea eta edatea.

- BERTUTEA?

Oso arduratsua naiz.

- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Gutxi..., gauza txikiak eskatzen ditut..., normalean gustua ateratzen diot bizitzari; lagunak, kafea edo bermuta hartzearekin zoriontsua naiz.

- JENIORIK BA AL DUZU?

Baaai...

- ETA NOIZ KALERATZEN DUZU?

Lan egiten dudana bitartean, oso lanpetuta nagoenean...

- GEU-REN BERRIRIK BAI?

Bai, aldizkariaren bitartez.

- EGUNKARIEN BAT?

Ia denak irakurtzen ditut egunero, sei bat edo, Egunkaria, La Razón eta ABC izan ezik.

- PELIKULA ONEN BAT?

El Padrinoren bat, lehena edo bigarrena.

- GUSTUKO AKTOREREN BAT?

Robert De Niro.

- TELEBISTA PROGRAMARIK?

Normalean telebista ez dut

ikusten, bakarrik bigarren kateko Lorenzo Milak egiten duena, Sorginen Laratza euskara lantzeko eta batzuetan El Informal.

- JAKI GOXOREN BAT?

Foie.

- ZURE GORPUTZ ATALIK POLITENA?

Altuera.

- TXIKITAKO OROITZAPENIK?

Kanpamantuetako egonaldiak.

- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Ahalik eta urrunen eta lasaitzeko, hemengo arazoetatik deslokatzeko.

- LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?

Victor Hugoren Los Misérables.

- IDAZLEREN BAT?

Naguib Mahfuz egipziarra.

- MUNDUAN DEN DENBORA GUZTIA IZANEZ GERO...

Leku lasai batera joango nintzateke, mendian, hondartzan etzanda egoteko... Erlojuari begiratu gabe bizitzeko, lasai-lasai egoteko.

- GASTEIZEN BIZIKO EZ BAZINA NON BIZIKO ZINATEKE?

Ez dakit..., Gasteiz izugarri gus-

tatzen zait, baina igual leku eguzkitsu batean edo behintzat argitsu den batean.

- GASTEIZEK DUEN ONENA?

Herri txikiko giroa.

- ETA TXARRENA?

Gauza bera, jende guztiak elkar ezagutzen baitu.

- EUSKARAZ BIZI DAITEKE GASTEIZEN?

Bai, baina nire arazoa da besteen aurrean irrigarri geratzeko beldur naizela. Menperatzen ez dudanez, beti esaten diot nire buruari hurrengoan egingo dudala, eta gainera zaila da zeren nire lagunak ez dakite, ezta nire senargaiak ere.

- ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ESATEA ZU HIL ETA GERO?

Pertsona ona nintzela.

- GUSTUKO KOLOREREN BAT?

Beltza.

- MUSIKA TALDERIK GUSTUKOENA?

U2, adibidez, eta hemengo taldeetatik, Itoiz, nahiz eta aspaldi desagertu izana.

• **Josune Velez de Mendizabal** •



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza · GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila · Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



e
g
u
n
e
k
o

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Ka La MUA

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Zure denda erotikoa

SEX

**Sexua
euskaraz
bizi**



PITTILIN GORRI

GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA


OIARTZUN

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ



Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

SERGIO FERNANDEZ ATAURI -REGU-ren kasua hobeto ezagutu nahian SENIDEAKera jo dugu. Hona hemen kontatutakoa:

Sergio Fernandez Aauri Gasteizen jaio zen duela 23 urte. Ertzaintzak 1998ko azaroaren 10ean atxilotu zuen eta lau urteko kartzela zigorra ezarri zioten "desordena publikoak" leporatuta, Langraizeko kartzelan espetxeratu zutelarik.

Atxilotu zuten arte ostalaritzan aritu zen lanean eta mendira joatea eta arrantza egitea zituen gustuko. Kartzelan sartu eta gutxira mediku azterketa bat egin zioten, tuberkulina, hepatitis, GIBa eta bestelako probak egin zizkiotelarik. Emaitza guztiak negatiboak izan ziren. Proba horiek sei hilez behin egin zizkioten eta 1999ko abenduaren 24an izandako istripura arte emaitzak berberak izan ziren.

Hain zuzen ere, 1999ko abenduaren 24an, patioan beste preso batzuekin futbolekin jolasten ari zenean, Sergiok ustekabean beste ekipoko jokalarik baten kontra talka egin zuen eta tamalez belaunarekin kolpe bat eman zion ahoan eta sudurrean. Istripu honen ondorioz Sergio eta beste presoak zauritu egin ziren. Presoak, ahotik eta sudurretik odola zeriola, Sergiori zauria egin zion hortzekin belaunean.

Gertaera jazo eta berehala bi presoak erietxera joan ziren, izan ere preso sozialak Sergiori jakinarazi zion bera seropositiboa zela. Erietxeko ATSak ez zuen neurri berezirik hartu, nahiz eta Sergiok eta beste presoak euren ardura helarazi. Erizainak ez zuen Sergioren zauria garbitu, ezta ura eta lixibarekin ere, eta halaber, gisa honetako istripuetan martxan jarri behar den protokoloak zehazten dituen neurriak ez zuen hartu.

Erietxean bertan Sergiok ATSari galdegin zion ea ez ote zion medikamentu edo tratamendu berezirik eman behar kutsadura ekiditeko. Baina, erizainak uneoro garrantzia kendu zion gertaerari eta zauriaren garbiketa arrunta baino ez zion egin, kutsadura saihesteko neurriak hartu gabe.

Gauzak horrela, Sergio ez zen lasai geratu eta egun horretan bertan espetxeko osasun zerbitzuei eskatu zion odola ateratzeko eta GIBaren analisia egiteko. Proba egin zioten eta emaitza negatiboa izan zen.

Martxoan, istripua izan eta bi hilabetera, emaitzak negatiboak ziren atzera. Hile berean, Sergiok bere buruari azterketa bat egin zion eta konkorr batzuk aurkitu zituen lepoan eta garondoan. Hortaz, moduluko medikuengana jo zuen, baina hauek ez zioten garrantzirik eta azalpenik eman eta antibiotiko batzuk baino ez zizkioten eman. Konkorrak desagertzen ez zirela ikusita, Sergiok sei biderrez jo zuen osasun zerbitzura, baina erizainen arabera gongoilek ez zuten inolako harremanik ustezko kutsadura batekin.

Ekainean, istripua jazo eta sei hilabetera, Sergio hirugarren analisiaren emaitzen zain zegoela, odola atera behar ziotela jakinarazi zioten, orduan Sergio arduratu egin zen. Analisi horren ondotik, moduluko medikuak esan zion GIBaren hirugarren eta azken azterketaren emaitzak positiboak zirela.

Sergioren egungo osasun egoerari dagokionez, aipatu beharra dago egindako proba biralak altuak izan direla eta, hortaz, karga hori maila egoki batera jaitsi dadin, tratamendu farmakologiko retrobiral bati hasiera eman diola. Edozein modutan ere, seropositiboa izateak gaixo kroniko bat bihurtu du, bizitza osoan botikak hartu beharko dituelarik eta bizimodu osasuntsua eraman beharko duelarik.

Askatasun gabeziak ez du zertan beste zigorrak ekarri, are eta gutxiago betirako den zigor bat, alegia, osasuna galtzea. Langraizeko medikuek arduragabekeriak jokatu zuten eta jokatu dute. Izan ere, indarrean dagoen Espetxeetako Araudiak behartu egiten ditu espetxeetan nazioarte maila adostutako protokolo batzuk martxan jartzera.

Gainera, egoera are eta larriagoa da, izan ere protokolo bera dago espetxeko funtzionariarentzat, eta ziur gaude kasu eta egoera guztietan aplikatzen dutela.

Sergio osasuntsu sartu zen gartzelara, eta bertan, medikuen arduragabekeria eta artarik ezaren eraginez, gaixotasun larri eta sendagaitz batez jota dago. Gaixotasun hori ahalik eta egoera hoberenetan tratatu behar da, alegia, askatasunean eta berak beharrezkotzat jotzen dituen laguntzekin.

Iragan irailean, Sergiok medikuen arduragabekeriaren kontrako salaketa judiziala jarri zuen Gasteizko Auzitegi Probintzialean. Salaketa honek aurrera darrai, eskatutako hainbat proba egin direlarik. Era berean, Senideak, euskal errepresaliatu politikoen senideen elkarteak, akusazio partikular gisa aurkeztu da.

Horretaz gainera, azaroan, Sergioren defentsa haren behin-behineko askatasuna eskatu zuen Kode Penalaren 92. artikuluan oinarrituz. Artikulu honek honakoa dio hitzez hitz: "...behin-behineko askatasuna ezartzeko irizpidea, medikuen txostenak zehaztuta, oso larri dauden gaixo eta sendaezinezko gaixotasunak dituztenei ezarriko zaie".

Aitzitik, eskaera hori ukatu egin zaio, haien ustetan, espetxeak ez duelako gaixotasunaren "ustezko larritasuna okertzen". Auzitegi Konstituzionalak 1996an erabakitako epaia gogoratu behar da, izan ere sendaezinezko gaixoak aske uztearen alde agertu zen, presoak libre uzteak haien sendaketa bermatzen ez badu ere, "hobetuko liratekeelako".

Era berean, gartzelatik ateratzeak hobekuntza eta gaixotasunaren garapen motelagoa ahalbidetuko luke eta larritasun egoerak behera egingo lukete. Izan ere, kontuan hartu behar da espetxea infekzio-gune bat dela eta hortaz, gazte hau kartzelan mantentzearekin tuberkulosia edota HIESarekin ateratzeko aukerak izugarri gehitzen direla.

Senideak, euskal errepresaliatu politikoen elkarteak, gertaera hori salatzeak hainbat ekimen burutu ditu: prentsaurrekoak, enkarteladak, espetxeko zuzendariari zuzendutako gutunen bidalketa eta azken hilabeteotan hainbat udaletan mozioak aurkeztu ditu, udal batzuetan onartu egin dituztelarik (Kanpezu, Laudio, Legutio).

SENIDEAK

HEGOALDE

Euskaltegia



Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Dalvez

argitarazteak

maketazioa eta diseinua

**Aldizkariak
Triptikoak
Kartelak
Gehigarriak**

Diaz de Olano, 22 behea
01008 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@euskalnet.net

... izan zaitez harpidedun!

IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

INGELES FRANTSESA ALEMANA

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin
- Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat

Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55



Arrasate
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

Uda honetan

INGLATERRA
ALEMANIA
FRANTZIA
KANADA
IRLANDA
EE.BB.



E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

• **Adi IKAk antolatu duen 13. Kanpoko Kultur Asteari.**

MAIATZAREN 7tik 11ra. Ipuin emanaldiak, antzerkia, hitzaldiak, poesia eta kontzertuak. Informazio gehiago: 945 28 89 22.

• **KULTUR ERROTA.
GEU ELKARTEAREN ESKUTIK:**

Ander Lipus (antzerki monologoa). PARRAL TABERNAN, MAIATZAREN 29an, 20:30etan.

"Ardoaz" du izena Iñigo Ibarra aktore Markinarrak aurkezten duen antzerki monologoak. **ANDERGROUN**D trilogiaren lehen parte da eta hiru erreferentzia hartu ditu aktoreak lan hau aurrera eramateko.

1- **J.K.Toole**-ren la conjura de los necios, eta bertan autoreak deskribatzen duen Ignatius Reilly pertsonaje printzipalaren eredu.

2- **Leopoldo M^a Panero** poeta ezagutzeak asko pentsarazi zion, sentimendu eta izaera aldetik batez ere.

3- **Charles Bukowski**-ren nobela eta poesia.

*Sinopsia: "... emagalduta batekin maitemintzen den deprabatu baten istorio krudela. Neskaren hiltzeak pertsonajearen tragedia bere gorenera eramango du, amets alkoholikoetan murgildurik. Ardoaren apologia egitera dator Ignatius, baina sentimenduak arrapaladan etorriko zaizkio behin eta berriro..."

• **GEU ALDIZKARIAK
GOMENDATZEN DU...**



OREKA TX (ELKARLANEAn eskutik)

"*Quercus Endorphina*" (Igor Otxoa eta Harkaitz Mtz)

Produktzioa: Kepa Junkera

"...Baso zaporea, egur usaina, QUERCUS ENDORPHINA, zalantzarik gabe, txalapartaren aurpegirik aurrerakoi eta esanguratsuena da".

**GEUREKIN MENDIRA.
MAIATZEKO IRTEERA**

ALOÑA

Noiz: Maiatzak 20

Irteera: Goizeko 8:30etan

Txapela tabernatik

(Prado kalea)

*goizeko irteera, baina aukeran BAZKARIA dago Oñatiko Soziedade batean (merke). Itzulera arratsaldean. Nahi duenak ibilaldia soilik egin dezake.

Izena eman behar da

(Maiatzaren 18a arte)

Tfnoa: 945 28 23 16 (Maite)

eta **EKAINEAN...**

GAROBEL MENDIAN

ZEHARKALDIA

(GEU, BAGARE, EUSKARAZ BIZI)

Noiz: Ekainak 3

Irteera: Goizeko 8:30etan

Marianistas eskola aurrean.

Autobusez. Prezioa: 600 pta.

(ikasleak) - 800 pta. (lanean ari direnentzat)

Izen ematea: Maiatzaren 31 arte

(Iruña taberna-Aiztogile kalean).

Informazio gehiago: 945 26 68 12


(Bego) 945 28 23 16 (Maite)

Elkarrizketa al da bakerako bidea?



www.ibarretxe.com

Erantzun positiboa.



NOSKI BAIETZ!
GOAZEN BA...



UDAKO



KOMITE INTERNAZIONALISTAK

BRIGADAK 2001

URRATSEZ URRATS



ELKARTASUNA ERAIKIZ

EPEA:

apirilaren 2tik maiatzaren 18a arte

NIKARAGUA - MEXIKO - KUBA - KOLONBIA

KOMITE



INTERNACIONALISTAK

GASTEIZ

Zapatari kalea, 95

ASTELEHENETAN,

arratsaldeko

8etatik - 10etara

OSTEGUNEAN,

arratsaldeko

8etatik - 11etara

Telefona:

945 14 93 79

burujabetzaren bidetik
Araba eraikitzen.
Euskal Herria
aurrera



**ARABAKO EUSKAL HOTSAK
ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA**

ERAKUSKETA

ARRAKASTA HANDIZ...

**...GASTEIZTIK LAUDIORA,
LAUDIOTIK AGURAINERA,
AGURAINETIK MAESTURA...**

**MAESTU:
APIRILAK 30-MAIATZAK 6**

**ARTZINIEGA:
MAIATZAK 21-27...**

**ARAMAIO, IZARRA,
GOPEGI, ERRIOKA...**

